

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública y Adicciones

AZIDOTASUN HANDIKO KARMELU LIKIDOAK**Oharra**

Merkatuan izugarri azidoak diren marka eta zapore askotako karmeluak daude; baina haurren mukosetan (ahoa, begietan...) lesioak eragin ditzakete.

Merkatuan zer produktu izan ditzakegun

Etiketan kontsumo-oharrak izaten dituzten azidotasun handiko karmelu likidoak.

Itxura

- Bolazko desodorante baten itxura.
- Espraia. Ahoan eragin ditzakeen arazoez gain, espraia erabiltzean produktuak begi edo sudurrera ihes egiten badigu, hango mukosak ere narrita ditzake.

Antzemandako ondorio kaltegarriak

Lesioak mukosetan; ahoan, bereziki.

Gomendioa

Saihestu edo gutxitu haurrek era horretako karmeluak jatea.

Vitoria-Gasteizen, 2016eko maiatzaren 23an

